

MAITENA MONROY - Feministaldeko aktibista

2013-10-26

Batzuetan, harritu egiten gara oraindik ere bere hartan dirauelako emakumeen kontrako hainbat jokaera maskulino indarkeriazkok. Ezin ulertu dugu nola zenbait gizon, itxuraz normalak, gai izan daitezkeen ustez maite zuten huraxe erailtzeko....

Sexu indarkeria, berriz, desira ustez ezin eutsizko batzuen barruan sartu ohi dugu. Erokeria, kontrolik eza, gainezkaldia edota antzeko zerbait begitantzen zaigu. Zuribide psikopatologikoren baten bila jo ohi dugu, geure kontzientziak lasaitzearren, geure erantzukizuna apaltzearren, «indultuaren ilusioa» sentiaraztearren geure buruari. Nire etxean berdintasuna praktikatzan dugu, berdintasunean hezten ditugu etxekoak. Zenbat bider entzungo ote genituen halako esaldiak. Matxismoaren ondorioetatik salbu sentiarazten gaituzte.

Haserrarazi egiten gaitu norbaitek gure jarreran ezaugarri matxistaren bat nabarmentzen baldin badigu. Funtsean, zera gertatzen zaigu: geure burua zalantzan jarria ikusten dugu, eta geure baitan iltzatzen eta giltzatzen gara. Geure praktikak babesten ditugu, baina, agian, geure praktiketarik babestu beharko genuke geure burua.

Jokabide diskriminatzaileak naturalizat harrarazten digu gizarte inposizioak, norbere praktika desberdin horretaz haragokorik ez bereizteraino. Hau da, kontzientziatze bat gertatzen da, praktika hori sexu jakin baterantz bideratzen baldin bada; baina, ohituraren ohituraz, praktika hori normaldu egiten da. Horrek eredu sexistak gararazten dizkigu, oharkabea. Hala eta guztiz ere, ziur nago jende askok feminismoa praktikatzan duela, ezjakinean. Matxismorik gabeko bizitza bat nahi dugu, baina gero moduren bat bilatu beharra daukagu aldaketarako borondate hori burutan ateratzeko. Zera pentsatzen dugu, «tira, ez da hain garrantzitsua ere», zerbait hautatu beharko bagenu bezala, edota diskriminazioaren alderdi bati aurre egiteak bateraezin bihurtuko balu bezala beste hainbat alderdi diskriminatzaileari aurre egitea. Bai, indarkeriarik basatienaren kontra borrokatu beharra dago, baina txorakeria bat da hizkera barnertzailea.

Desberdintasunak gutxiesteko joerak berekin dakar horiekiko tolerantzia. Erradikalak izan

beharra daukagu, sexismoa errotik erauzi behar dugu geure burutik eta egintzetatik. Matxismoaren erroraino jota baino ez dugu lortuko berdintasunerako espazioak sortzea.

Bizi garen jokalekuak aldatu egin dira, baina gutxi aldatu dira joko arauak. Ezin bereizi ditugu gure egintzak eta haien gertaleku den harreman esparrua, zeina desberdintasunezkoa baita oraindik ere. Harremanen esparrua aldatu egin da, baina ez halako tasunez «gabetzeko» lain.

Gure haurtzaroko iruditeria kolektiboak, Disneyk sustatua izaki, heroien eta printzesen mundura garamatza, eta, hor, kasu bakan batzuetan baino ez dira desagiten estereotipo zaharkituak; aitzitik, oro har, indartu baino ez dira egiten genero rol tradiziozkoak.

Oraindik ere, printzesen gisa jantzi ohi ditugu gure neskatoak, eta horrek mugatu egiten die esploraziorako eremua; are okerrago, geure printzesa izan daitezen nahi dugu, eta esan egiten diegu, behin eta berriz berresten.

Idea, aurreiritzi eta kode horiek guztiak beste usadio eta ohitura batzuekin batera bizi dira, elkarren bazka dira, sexismoa «egokiro» barneratu dadin. Mapa emozionalak sortzen dituzte maitasunerako, «benetako maitasuna» bizi izateko modu bakar eta eskusibo bat. Eragozpenez, minez, sufrimenduz, jaierez eta sakrifizioz betetakoa, eta bizi osorako maitasun gartsu bat izango duena ordainsari. Borrokaldi bihurtzen dugu maitasuna, maitasunez hiltzera behartzen gaituen borrokaleku. Non gizonak emakumeak konkistatu behar baitituzte, eta emakumeek, hasierako erresistentziaren ostean, erabat meneko izan behar baitute, gizonaen borroka saritzearren eta haien bizia zentzuz betetzearren.

Gainera, Espainiako Estatua, zoritxarrez, monarkikoa da, eta erakusteko moduan gaude errege-erreginen familiek ondorio kaltegarriak dakarzkietela egiazko emakumeen munduari eta ikusezin bihurtzen dituztela.

Egunen batean, emakume —hala baldin bazara—, joango zara lanera, eta baliteke entzun behar izatea ezinago ederra zarela, baina ez zeure lanbidean ezinago baliotsua.

Egunen batean, erakusleihen baten aurrean geratuko zara, eta, hari begira zaudela, berehala

jakingo duzu zer oinetako dagozkizun —emakumea baldin bazara—, eta barneratu egingo duzu pinpirinaren mina; edo, gizona baldin bazara, ondo bezain eroso ibili beharra.

Egunen batean, morrosko bulartsuen gisara txaloka hasiko gara, gure heroi partikularrek egindako futbol balentriak direla eta.

Egunen batean, emakumez josita ikusiko dituzu telebistak, haien gorputza kontsumo pizgarri, edo ez dakit zer produkturen sustagarri, eta edozeinek esango luke emakumeen gorputza bera dagoela salgai.

Egunen batean, emakumeen kontrako indarkeriara bultzatzen duten kantak kantatu eta dantzatuko ditugu.

Egunen batean, jostailu berberekin —hori bai, sofistikatuagoekin— jostatuko gara, panpinak ere hainbat beharrizan «fisiologikoak» izaten hasiak baitira.

Eta are okerrago: egunen batean, normala irudituko zaigu hori guztia.

Beldurra ematen digu hainbat iruditeria aldatzeak, askoz erosoagoa baita ezaguna zaigun horretan goxo egotea. Aldatzeak berekin dakar kontzientziatzea, hainbat erantzukizun hartzea eta prest egotea gizartearen jarrerari eta tradizionalisten erresistentziei aurre egiteko.

Berdintasun maila gehiago konkistatzeak askotariko erantzunak eragin ohi ditu: indarkeria gaiztotzea, hainbat lege aldatzea (abortatzeko eskubidea), emakumeei ospea galaraztea (salaketa faltsuak), desberdintasuna ukatzea eta, are arriskutsuago, pentsatzea dena egina dagoela. Ukazioa mekanismo bat da ez jarduteko, pasibo izateko edo aldaketari kontra egiteko.

Berdintasunaren aldeko aktibista izateak berekin dakar, ezinbestean, jakitea zein jokalekutan izango diren zilegi harreman berdintasunezkoagoak. Horiek nekez izango baitira zilegi ez baldin badugu desegiten emakumezkoen kontuak eta gizonezkoen kontuak bereizi egin behar direlako

idea. Eta inor baldin bada sinesten duenik hori gainditua dagoela, doala bateko eta besteko zinema aretoetara, dendetara, parkeetara, ikastetxeetako patioetara; ikus dezala telebista; entzun ditzala irrati tertuliak; eta abar.

Egunen batean, bizitzaz hitz egingo diegu gure neska-mutikoei, bizitzako arriskuez; baina gai izango al gara gure neska-mutikoak sexismotik babesteko eta sexismorik gabeko bizitza libre batean hezteko?

Hartara, agian, egunen batean, beste ikuspegi batetik begiratuko diogu munduari, eta ez zaigu normala begitanduko matxismoa.

EN UN DIA CUALQUIERA

A veces nos extrañamos de que persistan las conductas masculinas violentas contra las mujeres. No entendemos como hombres, aparentemente normales, son capaces de asesinar a quién supuestamente amaban.

La violencia sexual la enmarcamos dentro de supuestos deseos irrefrenables. Se nos hace una suerte de locura, de descontrol, de arrebató. Solemos buscar un razonamiento psicopatológico, para calmar nuestras conciencias, nuestra responsabilidad, para sentirnos en la "ilusión del indulto". En mi casa practicamos la igualdad, educamos igualitariamente, todo se hace al 50%. Tantas veces hemos escuchado estas frases. Nos hacen sentirnos a salvo de los efectos del machismo.

Tendemos a sentirnos indignadas/os si alguien nos señala algún aspecto machista en nuestras actitudes. En el fondo lo que nos pasa es que nos sentimos cuestionadas/os y nos cerramos en banda. Defendiendo nuestras propias prácticas cuando quizás lo que habría que hacer es defendernos de nuestras prácticas.

La imposición social nos conduce a la naturalidad de comportamientos discriminatorios, sin discernir más allá de la propia práctica desigual. Es decir, hay un acto de conciencia cuando se orienta esa práctica hacia un sexo concreto pero hay una normalización, por hábito, de esa práctica. Lo que nos lleva a desarrollar patrones sexistas sin reconocerlos. Ahora bien, estoy segura de que muchas personas practican el feminismo sin saberlo. Deseamos una vida sin machismo pero aunque el deseo es una parte esencial del compromiso vital luego debemos de buscar el cómo llevar adelante esa voluntad de cambio. Pensamos, bah eso no es tan importante como si hubiera que elegir o la confrontación de una parte de la discriminación hiciera incompatible enfrentar otros aspectos discriminatorios. Sí, hay que luchar contra la violencia más salvaje pero el lenguaje inclusivo es una tontería.

La tendencia a infravalorar las desigualdades entraña una tolerancia hacia las mismas.

"No hay que ponerse así, no hay que ser radicales".

Pues, me temo que sí, que hay que ser radicales, debemos erradicar de nuestras mentes y de nuestros actos el sexismo. Sólo hundiéndonos en la raíz del machismo conseguiremos crear espacios para la igualdad.

Los escenarios en los que vivimos cambian pero las reglas del juego han cambiado tímidamente. No podemos separar nuestras acciones del marco relacional en el que se producen y este sigue siendo de desigualdad. El marco relacional se ha modificado pero no

tanto como para conseguir “descolgarlo”.

Nuestro imaginario infantil colectivo, promovido por Disney, nos lleva al mundo de héroes y de princesas, que excepcionalmente rompen con viejos estereotipos pero que de manera general refuerzan los roles de género tradicionales.

Seguimos vistiendo a nuestras niñas como princesas lo que limita su campo de exploración y peor aún, queremos que sea nuestra princesa, se lo decimos, lo reforzamos cada noche y cada día.

Todas estas ideas, prejuicios, códigos cohabitan con hábitos y costumbres que se retroalimentan para una “adecuada” internalización del sexismo. Crean mapas emocionales para el amor, manera única y exclusiva de vivir “el amor verdadero”. Lleno de obstáculos, dolor, sufrimiento, entrega y sacrificio que serán recompensados con un amor apasionado para toda la vida. Convertimos el amor en una batalla, en una guerra en la que hay que morir de amor. Donde los hombres deben conquistar a las mujeres y éstas, después de la inicial resistencia, entregarse por completo para recompensar la lucha del varón y dotar de sentido su vida.

Alguien debería decirles a nuestras niñas que significado real tiene ser princesa. Además el estado español, por desgracia, es monárquico y podemos mostrar los efectos nocivos de la realeza para el mundo y la invisibilidad de las mujeres “reales”.

En un día cualquiera, si es usted mujer, puede ir al trabajo y escuchar continuamente lo guapa que es y no su valía profesional.

En un día cualquiera se parará a mirar un escaparate y sabrá que calzado le corresponde si es mujer, para estar guapa hay que sufrir, o si es hombre, la comodidad ante todo.

En un día cualquiera aplaudiremos las remontadas del fútbol que hacen nuestros héroes particulares como verdaderos machotes.

En un día cualquiera verá la televisión plagada de cuerpos de mujeres incitando al consumo o promoviendo no se sabe que producto pues más bien parece que es el cuerpo de las mujeres el que está en venta.

En un día cualquiera cantaremos y bailaremos canciones que incitan a la violencia contra las mujeres.

En un día cualquiera jugaremos a los mismos juguetes, más sofisticados eso sí, las muñecas ya tienen necesidades “fisiológicas” varias.

Y lo peor de todo es que ese día cualquiera nos parecerá normal.

Nos asusta cambiar imaginarios porque es mucho más cómodo quedarse en lo conocido. Seguir reproduciendo patrones tradicionales. Cambiar implica una toma de conciencia, asumir responsabilidades y estar preparada/o para la exposición social y las resistencias de los/as tradicionalistas.

Las reacciones ante la conquista de más cotas de igualdad adquieren formatos diversos; recrudescimiento de la violencia, cambio de leyes (derecho al aborto), descrédito de las mujeres (denuncias falsas), negación de la desigualdad y algo que es mucho más peligroso que es el hecho de pensar que ya todo está hecho. Negar es un mecanismo de no actuación, de pasividad o incluso peor, de resistencia al cambio.

Ser activista de la igualdad implica necesariamente saber cuál es el escenario en el que se pueden producir relaciones más igualitarias. Que difícilmente se producirán si no rompemos con la idea de cosas de mujeres y cosas de hombres. Quién crea que eso ya está superado que se dé una vuelta por los cines, por las tiendas, por los parques, los patios de los colegios, que vea televisión, oiga tertulias, etc.

En un día cualquiera les hablaremos a nuestras niñas/os de la vida, de sus riesgos, les diremos

cómo cruzar la acera, cómo superar obstáculos ¿pero seremos capaces de educarles y protegerlos de una vida libre de sexismo?

Así, quizás, en un día cualquiera miraremos el mundo con otra lente y no nos parecerá normal el machismo.